



EBAZPENA, 2023ko abenduaren 21ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2023-2024 ikasturtean unibertsitate-ikasketak eta beste goi mailako ikasketa batzuk egiteko bekak ebazten dituen.

2023ko ekainaren 20ko aginduaren bidez (2023ko ekainaren 29ko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2023-2024 ikasturtean unibertsitate-ikasketak eta beste goi mailako ikasketa batzuk egiteko.

2023ko abenduaren 4an 2. ebazpen-proposamena argitaratu eta jakinarazi ondoren, beka orokorrari buruzko 2. ebazpena argitaratu da honako pertsona hauentzat: proposamena onartu dutenak, alegaziorik aurkeztu ez dutenak eta, alegazioak aurkeztu eta ebatzita daudenak.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozedurako gainontzeko arauak bete ondoren

EBAZTEN DUT

1.- 2023-2024 ikasturtean unibertsitate-ikasketak eta beste goi mailako ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei 2. ebazpena jakinaraztea. Eranskinean zerrendatzen dira onartutako edo ukatutako eskabideak. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpenaren xehetasunak.

2.- Eranskinean ageri diren eskatzaileei jakinaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioketela Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari. Errekurtsua aurkezteko epea hilabetekoa da, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 21a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria